



## **BAIKARA, BIGE ETA DENON ESKOLA FEDERAZIOAK ETA EHIGE KONFEDERAZIOA ESKOLA-JANTOKIEN GREBAREN AURREAN.**

Gaur eta bihar EAEko ikastetxe publikoetako eskola-jantokietan ospatuko diren grebekin 15 egun baino gehiago dira urte bat baino gutxiagoan. Denbora guzti honetan jarrera zuhurra eta lan-baldintzak hobetzeko langileek daukaten nahienganako errespetuzko jarrera izan dugu familien gehiengoa ordezkatzeko dugun elkarteok, euren aldarrikapenak defendatzeko daukaten greba eskubidea barne.

Hala ere, eta gatazka konpontzeko negoziaketek emaitza positiborik lortu ez dutela kontuan izanik, uste dugu iritsi dela momentua gure iritzia ezagutarazteko bai eskola komunitateari eta baita gizarteari ere.

### **ALDARRIKAPEN SINDIKALEN NEGOZIAKETA**

Sindikatuaren aldarrikapenen balorazioarekin hasiko gara. Negoziaketa hauek 2003-2008 denboraldiko lan-hitzarmena ordezkatzeko duen hitzarmen berri baten baitan kokatzen dira. Hauexek dira sindikatuek planteatzen dituzten aldarrikapen garrantzitsuenak:

- Lanaldia handitzea denbora izateko txostenak idatzi, familiak artatu eta koordinazio lanetarako.
- Prestakuntza orduak hainbat arlo lantzeko: dieta, alergiak, gatazken ebazpena eta abar.
- Begiraleko ratioak murriztea.
- Soldata igotzea eskola-jantokietan aritzen diren eta Hezkuntza sailaren menpe dauden beste langileekiko soldata-homologazio lortzeko.

Aldarrikapen hauek kontuan harturik, **federazioak eta EHIGE ados gaude Hezkuntza administrazioarekin negoziatzeko eskola-jantokiaren zerbitzuaren kalitatea hobetuko luketen hobekuntzak egiteko: lanaldia handitzea, prestakuntza eta ratioak murriztea**. Soldata igotzeari dagokionez, uste dugu negoziaketa hori lan- eta enpresa-aldeei dagokiela, hori dela eta ez dugu inolako iritzirik plazaratuko.

Ikasturtea hasi zenetik elkarriketak hasi genituen Hezkuntza sailarekin hiru arlo horietan hobekuntza lortzeko. **Azaroan akordio baten hastapenera iritsi ginen 2010-2011 ikasturtean koordinazio lanetarako eta familiak artatzeko 16 ordutan handitzeko lanaldia, beste 6 ordu prestakuntzarako eta haur hezkuntzako ratioak errebisatzen hasteko.**

Famili eta Administrazioaren artean finantzatzeko liriateke hobekuntza hauek: zertxobait igoko litzateke familien kuota (20 zentimo inguru menuko) eta handitu egingo litzateke ere Eusko Jaurlaritzaren ekarpena. Datorren ikasturtean hobekuntza hauek baloratzeko konpromisoa hartu genuen ere, eta egoki suertatuko balitz,

gehikuntza gehiago egiteko aukera hurrengo hiru urteetan, kasu horretan Jaurlaritzan, enpresak eta familien laguntza eskatuz.

**Akordio hauek sindikatu eta enpresei ezagutarazi genizkien bere garaian**, baina argi dago ez direla nahiko izan gatazka desblokeatzeko eta, gainera, larriagotu egin dela egoera azken asteetan asteko bi egunetako mugagabeko greba deialdiekin.

Hori dela eta zera adierazi nahi dugu: akordioa lortze ezaren arrazoia homologazioa lortzeko soldata-igoera dela soilik, izan ere uste dugu gainontzeko hiru arloetan eman direla pausuak akordioa lortzeko.

Era berean, hainbat familia eta guraso elkartek egiten digun galdera hau helarazi nahi diegu greba deialdia egiten duten sindikatuak: zergatik egiten dira greba deialdiak soilik eskola-jantoki publikoetan badakigun arren ikastetxe pribatuetako langileen lan-baldintzak txarragoak direla? Ez Federazioek ezta EHIGEk ere ez daukagunez galdera honen erantzunik, sindikatuak erantzutea espero dugu.

## **GREBAREN ONDORIOAK FAMILIEN ETA IKASTETXEEN ANTOLAKETARAKO**

EHIGEk eta Federazioek uste dugu **grebak batez ere familiei kalte egiten diela, hauek negoziaketaren parte ez diren arren**. Izan ere, gurasoak lan orduak galtzen ari dira haien lanpostuetan eta gero errekueratu egin beharko dituzte edo oportunitate kendu; eskolako bizitzaren aldaketak familiako giroan eragozpen larriak ekartzen ditu eta ezinezkoa bihurtzen du lan, familia eta eskolako kontziliazioa; gurasoen elkarteek, IGEEK, eskolaz kanpoko jardueretan galera ekonomiko handiak jasotzen dituzte, askotan jarduerak hauek murriztu edo galtzera eramanez.

Gainera, eskolako ordutegia aldatu izan behar duten ikastetxeetan ikasleek ez dituzte eskolaz kanpoko jarduerak soilik galtzen, klaseko orduak ere.

Izandako greba egunak pasatu ahala behin baino gehiagotan eskatu diogu Hezkuntza sailari (jantokiaren kudeaketaren arduradun nagusiari) greba egun hauek familientzat ekartzen ari diren ondorioak arintzeko neurriak ezartzea ahal den heinean. Eskatutako neurrien artean hauek zehaztu nahi ditugu:

- **Eskola-jantokiak irekita egon behar dira**, ezarritako gutxienerako zerbitzuak mantendu ahal izateko.
- Hezkuntza administrazioari ikastetxeetan geratzen diren **ikasleen segurtasuna bermatzea** eskatzea, zuzendaritzan edo gutxienerako zerbitzuak nahikoak ez diren hauek ardurak guztia utzi barik. Ikastetxeen zuzendaritzari eskola-jantoki bakoitzean eman behar den jokabidea modu argi eta labur batean informatu eta aholkuak ematea.

- **Familiak ahalik eta kalte gutxien jaso dezatela bermatzea** baita IGEetatik bultzatutako jardueretan. Gutxieneko zerbitzuen barne ez dauden eta jantokirik gabe geratu ezin diren ikasleak ikastetxean gera daitezkeela betiko ordutegian, familiak erabakitako bazkaria etxetik eramanez, ikaslearen segurtasuna hezkuntza administrazioak bermatuta.

Hezkuntza administrazioa, sindikatuak, catering enpresak eta familien arduradunekin **bilera ireki bat mantentzeko prest** gaudela adierazi nahi dugu, parte guztiei greba honekin amaitzeko akordioa lortzeko beharrezko jarrera eskatuz. Federazioak eta EHIGE prest gaude negoziaketa honetan lagundu eta elkarlanean aritzeko, baita horretan parte hartzeko ere, familien bizitza, lana eta hezkuntza hainbeste kaltetzen dituen gatazka honekin bukatzeko.

Amaitzeko, EHIGE Gurasoen Elkarteak hezkuntza komunitate osoan izandako eztabaidaren ondoren eta hainbat hezkuntzako eragile, sindikatu eta elikadura adituen ekarpenak kontuan izanda **eskola-jantokiak hobetzeko proposamena** prestatu duela adierazi nahi dugu; eztabaida irekia eta jantoki zerbitzuen arlo guztietako egungo baldintzak aldatzeko aukera ema nahi du proposamen honek.

Bilbon, 2010eko martxoak 24

**EHIGE Gurasoen Elkarteak, BIGE, BAIKARA, DENON ESKOLA**